



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de noviembre de 2019**

## Lehendakaritza

### **FORU ALDUNDIEN BULTZADA EKONOMIKOA GAZTERIAREN ARTEAN INDARKERIA PREBENITZEKO BELDUR BARIK PROGRAMARI**

Gobernu Kontseiluak gazteriaren artean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakunde arteko programaren garapenerako eta finantziarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta EAEko hiru foru aldundien arteko hiru hitzarmen baimentzea onartu du.

Emakundek antolatzen du eta koordinatzen du programa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zein EUDEL-en babesa eta beste erakunde batzuen laguntza jasotzen du: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila, Enplegu eta gizarte politiketako sailaren Gazteria Zuzendaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta EITB. Gaur hiru foru aldundiekin sinatu beharreko hitzarmena egiteko baimena onartu da, zeinaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak 35.000 euro jarriko ditu, Gipuzkoako aldundiak 25.000 eta Arabakoak 12.000 euro. Emakundek 72.000 euroekin finantzatzen du programa.

Beldur Barik lehiaketa programaren ekintza nagusienetako bat da. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. Lan horiek erakutsi behar dute nola neska eta mutilek ezberdintasun egoerei aurre egiten dieten Beldur Barik jarrerarekin. Alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerarekin.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### JAURLARITZA AZAROAN HASIKO DA LAKUAKO 436 LANPOSTUREN SOLDATA-IGOERA ORDAINTZEN, 2010EKO URTARRILAREN 1ERA ARTEKO ATZERAERAGINEZ

- **Neurriak aurrekontuan 4,5 milioi euroko eragina izango du**
- **Gobernuak, horrela, Euskadiko administrazio orokorreko lanpostuen zerrenda berrikusteko eta eguneratzeko pasa den apirilean Jaurlaritzak eta funtzio publikoko sindikatuek hitzartu zuten akordioa betetzen du**

Gobernu Kontseiluak, gaur, honako hau onetsi du: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura dauden lan-kontratudunen kolektiboaren analisi funtzionalen antolamendu-prozesua amaitu ondoren lan-kontratudun langileen eta funtzionarioen lanpostuen zerrenda aldatzeak eragindako ondorio ekonomikoak ordaintzeari buruzko akordioa”*.

Horrela gauzatuko dira, azarotik aurrera, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera egiteke dauden ordainsari berriak, aurten sailen eta erakunde autonomoen lanpostuen zerrenda (LPZ) eguneratzea ahalbidetu duen [akordio](#) sindikalaren ondoren. Neurriak aurrekontuan 4,5 milioi euroko inpaktua izango du. Gobernuak, aurtengo azaroan, atzerapenen % 50 ordainduko du eta, 2020ko maiatzean, gainerako % 50a.

### AKORDIOA SINDIKATUEKIN

Erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bete egiten du pasa den apirilaren 2an Euskadiko administrazio orokorreko gehiengo sindikalarekin adostutako [akordioa](#). *“Lakuako Mahai Sektorial”* izenekoan ordezkariak duten 4 sindikatuak 3ekin sinatu zuen (LAB, CCOO eta UGT), eta 436 lanpostu aldatu eta eguneratzea dakar, baita soldatak eguneratzea ere:

- 368 postu Euskal Administrazio Orokorreko lan-kontratudun langileenak.
- 22 postu Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioenak.
- 46 lanpostu lehengo “Itsasmendikoi” sozietate publikokoak; sozietatea HAZIrekin fusionatu zen, Euskadiko Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako sozietate publikoarekin.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZAK UKO EGIN DIO EH-BILDU TALDEAK EGINIKO “ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO LEGE-PROPOSAMENA”REN TRAMITAZIOARI

- Haren helburuak Eusko Jaurlaritzaren [Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektuan](#) aurreikusitako enplegu erreplika bat dira eta, beraz, proposamena egin duen taldeari gomendatu dio zuzendu dezan, legegintza-ekimen berria aurkeztu beharrean
- Gainera, Gobernuak gogorarazi du ekimen horrek eragin negatiboa izan dezakeela zentral sindikalekin hurrengo lan-eskaintza publikoen inguruan egiten ari den negoziazioan; izan ere, haien bidez, lehen aldiz gauzatu nahi dira enplegua finkatzeko prozesu bereziak

Gobernu Kontseiluak, gaur, EH-BILDU Legebiltzarreko taldeak erregistratu duen “Enplegu Publikoa Egonkortzeko Lege Proposamena”ren tramitazioaren aurkako irizpena eman du. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du urtarrilean onetsi zuela eta bidali ziola Ganberari [Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua](#), eta, bertan, orain bigarren legegintza-ekimen horren bidez proposatzen diren enplegua egonkortzeko proposamenak jaso direla. Logikoa da proposamena egiten duen taldeak, legegintza-ekimen berria aurkeztu beharrean, duela hilabete batzuk Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen eta izapidetzeko fasean bete-betean dagoen [lege-proiektuari](#) zuzenketak prestatzea.

Gainera, [Eusko Jaurlaritzaren legegintza-ekimeneko](#) xedapenetan jasotako enplegu publikoak egonkortzeko prozesuek berme juridiko sendoak dituzte; izan ere, dagoeneko, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren abala dute.

Era berean, EH-BILDUK nahi du Eusko Jaurlaritzak plan estrategiko berri bat egitea, enplegu publiko finkatzeko prozesuak garatzeko metodologia-artikulazio egokiena duten bi plan indarrean daudenean: *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa* eta *2020 Enplegu Plan Estrategikoa*.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, EH-BILDUren ekimenak eragin larriak izan ditzake zentral sindikalekin hurrengo lan-eskaintza publikoak lantzeko negoziazio kolektiboko mahaietan egiten ari diren negoziazioetan; izan ere, haien bidez, lehen aldiz gauzatu nahi dira enplegua finkatzeko prozesu bereziak.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

### **VISESAK BABES OFIZIALEKO 484 ETXEBIZITZA HASI DITU AURTEN HIRU LURRALDEETAN, ETXEBIZITZA HORIEN % 72 ALOKAIRU SOZIALERA BIDERATU DA**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta VISESA (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra/Vivienda y Suelo de Euskadi SA) sozietate publikoaren artean sinatutako 2019ko Programa Kontratuari.

Dokumentu horretan VISESAren jardura zehazten da eta alokairurako etxebizitzak ekoizteko joera islatzen da, hain zuzen ere, 2018-2020 aldirako Etxebizitza Plan Zuzendariak eta aldi bererako VISESAren Plan Estrategikoak zehaztutakoaren bide beretik. 2015eko Etxebizitzaren Legeak xedatzen duenari jarraiki, VISESAren jardura alokairuko etxebizitzak eskaintzera bideratuko da; hortaz, datorren urteko bigarren hiruhilekotik aurrera, VISESAk errentamendu-araubideko etxebizitzak baino ez ditu kalifikatuko.

Programa Kontratuan guztira 484 etxebizitza barne hartu dira 2019ko ekitaldirako. Etxebizitza horien % 72 (348) alokairu-araubidekoa izango da eta Alokabide sozietate publikoak kudeatuko du. Gainerako % 28a (136 etxebizitza), dagoeneko programatuta zegoena, erosketa-modalitatean sustatuko da.

Alokairuko 348 etxebizitzei dagokienez, Bizkaiko Barakaldo udalerrian 94 etxebizitza sozial sustatuko dira. Gainerako 254 etxebizitzak, aldiz, Gipuzkoan sustatuko dira: Arrasaten (70 BOE alokairuan), Hondarribian (34 etxebizitza sozial eta 42 BOE alokairuan) eta Zumarragan (72 BOE alokairuan eta 36 etxebizitza sozial). Bestalde, erosteko etxebizitzak Bilbon (58 BOE Zorrotzaurren), Hondarribian (42 BOE) eta Eibarko Egazelain (36 BOE).

## Hezkuntza

### **175.000 EURO DOKTORETZA-AURREKO IKERTZAILEEN EGONALDIETARAKO DIRULAGUNTZETAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen agindua.

175.000 euroko diru-kopurua duen deialdi hau gorago aipaturiko Doktoretza-aurreko Programaren onuradun diren ikertzaileei zuzendua da. Ikertzaile hauek lan-kontratu bidezko harremana dute ikerketa zentroekin (unibertsitate edo ikerketa erakundeak, I+G+b-n ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak). Ikerketa zentro horiek Doktoretza-aurreko programarako aplikazio-zentrotzat hartzen dira. Hala ere, maiz, doktoretza-aurreko ikertzaileek aplikazio-zentroa ez den beste zentro batean egin ohi dituzte unean-uneko egonaldiak, euren ikerketa-lanak hala eskatuta.

Horrela bada, Hezkuntza Sailak dirulaguntza deialdi hau deitzen du, lekualdatzeak edo aldi baterako egoitza-aldaketak egin behar izaten dituzten doktoretza-aurreko ikertzaile horiei osagarri ekonomikoak eskaintzeko helburuz. Egonaldiak unibertsitateetan, ikerketa edo garapen teknologikoko zentroetan eta I + G +b-ko jarduera duten enpresetan egin ahal izango dira, atzerriko zein estatu mailakoetan, betiere aplikazio-zentroarena ez den beste herri batean kokatuta badaude eta diru-laguntza ematea justifikatuko duen aldi baterako egoitza-aldaketa badakar.

2019an, doktoretza-aurreko 58 ikertzailek jaso dute diru-laguntza iazko deialdiaren bidez, eta horrela, aldi bateko egonaldiak egin ahal izan dituzte (edo egiten ari dira) euren aplikazio zentroa ez den beste zentzoren batean.

Egonaldien helburua izango da ikertzaileek beren ikerketa zientifiko eta teknikoan izan beharreko prestakuntza hobetzea eta, horretarako, jarduera hauek egitea: ikerketa-jarduerak, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, edo gauzatzen ari den tesi-proiektuaren testuinguruan, prestakuntza zientifikoaren onerako izango den eta tesia garatzeko prozesua sustatuko duen beste edozein ikerketa-jarduera.

## Hezkuntza

### **DIRULAGUNTZA ZUZENA MAKINA ERREMINTAREN HEZKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOARI, PRESTAKUNTA DUALEKO EKIMENAK GARATU DITZAN**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Elgoibarko Makina Erremintaren Hezkuntza Teknikorako Fundazioari dirulaguntza zuzen bat ematea, Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolak 2019ko urterako definitu eta lehenetsi dituen ekimenak finantzatu ahal izan ditzan. Dirulaguntza honek 27.150 euroko kopurua du.

Elgoibarko Makina Erremintaren Hezkuntza Teknikorako Fundazioa (IMH) industria eta komunitatearen zerbitzura dagoen Formakuntza eta Berrikuntza Teknologikoko zentro bat da, formakuntza-jardueren, zabalpen teknologikoaren eta zerbitzu teknikoen bitartez. Zentro honetan lantzen diren formakuntza-jarduera garrantzitsuenak Lanbide-Heziketa, Unibertsitate-Formakuntza eta Etengabeko-Formakuntza dira.

IMHren Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolak, UPV/EHUri atxikitako zentro gisa, *Prozesu eta Produktu Berrikuntzako Ingeniaritzako Gradu Duala* eskaintzen du, orotara 200 ikasle inguru dituelarik bere lau mailetan. Aipaturiko Graduaz gain, graduondoko berezko beste bi titulu ere diseinatu ditu: *Industria 4.0rako Datuen analitika Prediktiboko Proiektuak*, eta *Fabrikazio Gehigarria*, biak punta-puntako enprekin eta berrikuntza-sistemako eragileekin lankidetzan diseinatuak.

Unibertsitate Eskola honen 2019rako jarduera-programak, lan ildo eta helburuen artean honako hau jasotzen du: erreferentziazko proiektu bat garatzea prestakuntza dualaren eta enpresekiko lankidetzaren esparruan, estatu mailan. Helburu horretarako bideratzen da gaur onarturiko dirulaguntza.

Prestakuntza-eredu dualean, unibertsitatearen eta enpresaren arteko heziketa konbinatuari esker, txikitu egiten da irakaskuntza klasikoaren eta errealitate profesionalaren arteko distantzia. Eusko Jaurlaritzaren *Unibertsitatea+Enpresa Estrategiak* bultzatzen duen eredu berritzaile honek ahalbidetzen du bi testuinguru desberdinetan garatzea denbora errealean ikasleak bereganatu dituen gaitasunak –unibertsitate-jakintza batetik eta enpresan landutako ikasketa esperimentalak, bestetik–, era honetan lan mundurako sarrera bermatuz.

## Lana eta Justizia

### **GOBERNUAK 2,7 MILIOI EURO BIDERATU DITU BILBON EKIPAMENDU JUDIZIALA ZABALTZERA**

Gobernu Kontseiluak adostu egin du Bilbon hamar lokal eskuratzea. Guztiak Ibáñez de Bilbao kalean daude kokatuta, 3. zenbakian –Cristal izenez ezagundena eraikina– eta 2.765.000 eurokoa da erosketaren zenbatekoa.

Lokalen kokapena bereziki egokia da, Bilboko oraingo eraikin judizialek oso gertu daudelako ez ezik, eraikin horretako beheko solairuaren jabea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa delako ere. Solairu hori Zigorra Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak, Biktimentzako Arreta Zerbitzuak eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuak hartuko dute –guztiak Justiziako Zuzendaritzaren menpekoak–.

Erosketa-eragiketak aukera ematen du: 1.175 metro karratu handitzeko Bizkaiko hiriburuko ekipamendu judiziala; eraikina Zerbitzu ez Jurisdikzionaletako egoitza izateko, Bilboko gainerako ekipamendu judizialei lotuta; Barroetako eta Buenos Airesko Justizia Jauregiatiko bulego batzuk bertan kokatzeko, dagoeneko onetsita dauden Organo Judizial berriak barnean hartzeko (Lehen Instantziako Epaitegia 16. zk.) eta etorkizuneko Bulego Judizial Berria ezartzeko.

Orain, Bilboko ekipamendu judiziala lau eraikinetan dago banatua:

- Buenos Airesko Justizia Jauregia, 22.800 metro karratukoa. Bertan daude jurisdikzio penaleko epaitegiak, Fiskaltza Probintzialeko AM Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko bulego guztiak, EATko bulegoak eta abar.
- Albiako Justizia Jauregia, 12.300 metro karratukoa. Bertan daude Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia eta Entzutegi Probintziala.
- Barroetako Justizia Jauregia, aurrekoarekin komunikatua eta 26.200 metro karratukoa. Bertan daude jurisdikzio zibileko epaitegiak, Adingabeen Fiskaltza, Auzitegiko Institutu Anatomikoa eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen laborategiak.
- Ibáñez de Bilbao kalean 3. zenbakiko “Cristal” bulego-eraikineko beheko solairua, 465 m<sup>2</sup> gehitzen zaizkiona, Zigorra Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak, Biktimentzako Arreta Zerbitzuak, eta Euskadiko Justizia Errestauratiboko Zerbitzuak hartuak –guztiak Justizia Sailaren menpekoak–.

Bestalde, gogora ekarri beharra dago 2017ko urrian hasi zirela Bizkaiko Fiskaltza Probintzialaren eraikineko obrak; Bilboko zabalguneko Henao kalean, 9. zenbakian dago kokatua eta obren aurrekontua 7,6 milioi eurokoa da, eta exekuzio-epaia 46 hilabetekoa, kontuan hartuta aurreikusita dagoela 2011ko



urrirako amaituta egotea eta 2022ko bigarren sei hilekoan zerbitzu ematen hasiko dela eraikina.

**Presidencia**

**APOYO ECONÓMICO DE LAS DIPUTACIONES AL PROGRAMA BELDUR BARIK PARA LA PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA ENTRE JÓVENES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado autorizar la suscripción de tres Convenios de Colaboración de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer con las diputaciones de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba para el desarrollo y cofinanciación del programa interinstitucional Beldur Barik de prevención de la violencia contra las mujeres dirigida a la juventud.

El programa está organizado y coordinado por Emakunde, cuenta con el apoyo de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, y EUDEL; y la colaboración del departamento de Educación, la Dirección de Juventud del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y EITB. Hoy se ha autorizado la suscripción de los convenios a través de los que la Diputación de Bizkaia aportará 35.000 euros, la Diputación de Gipuzkoa aportará 25.000 euros y la Diputación de Araba con 12.000 euros. Emakunde, por su parte, financia el programa con 72.000 euros.

El concurso audiovisual Beldur Barik es una de las acciones principales del programa. Está dirigido a jóvenes de entre 12 a 26 años y premia expresiones artísticas, en formato audiovisual, con las que chicas y chicos, muestran cómo se enfrentan a las desigualdades con actitud Beldur Barik.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO COMIENZA A ABONAR, EN NOVIEMBRE, LA SUBIDA SALARIAL DE 436 PUESTOS DE TRABAJO DE LAKUA CON RETROACTIVIDAD A 1 DE ENERO DE 2010

- El impacto presupuestario de la medida asciende a 4,5 millones de euros
- Se materializa así el [acuerdo](#) de revisión y actualización de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) de la Administración General de Euskadi pactada el pasado mes de abril entre el Gobierno y los sindicatos de la función pública

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Acuerdo en relación con el abono de los efectos económicos de la modificación de la Relación de puestos de trabajo del personal laboral y funcionario una vez finalizado el proceso organizativo derivado de los análisis funcionales del colectivo de laborales al servicio de la Comunidad Autónoma de Euskadi*”.

Así se materializan, a partir de este mismo mes de noviembre, las retribuciones pendientes desde el 1 de enero de 2010, tras el [acuerdo](#) sindical que ha permitido actualizar este año de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) de los departamentos y organismos autónomos. La medida tiene un impacto presupuestario estimado de 4,5 millones de euros. El Gobierno abonará este mes de noviembre el primer 50% de los atrasos y en mayo del 2020, el 50% restante.

### ACUERDO CON LOS SINDICATOS

Con esta decisión, el Gobierno Vasco cumple el [acuerdo](#) alcanzado el pasado 2 de abril con la mayoría sindical de la Administración General de Euskadi. Firmado con 3 de los 4 sindicatos con representación en la denominada “*Mesa Sectorial de Lakua*” (LAB, CCOO y UGT), supone la modificación y actualización, también de salarios, de 436 puestos de trabajo:

- 368 puestos de personal laboral de la Administración General de Euskadi.
- 22 puestos de personal funcionario de la Administración General de Euskadi.
- 46 puestos de trabajo procedentes de la antigua sociedad pública “*Itsasmendikoi*”, fusionada con HAZI, la sociedad pública de desarrollo rural, litoral y alimentario de Euskadi.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO VASCO RECHAZA LA TRAMITACIÓN DE LA “PROPOSICIÓN DE LEY PARA LA ESTABILIDAD DEL EMPLEO PÚBLICO” DEL GRUPO EH-BILDU

- Sus objetivos son una réplica de los contemplados en la [Proyecto de Ley de Empleo Público Vasco](#) del Gobierno, por lo que recomienda al grupo proponente que lo enmiende en vez de presentar una iniciativa legislativa nueva
- Además, el Gobierno recuerda que esta iniciativa puede interferir negativamente en la negociación con las centrales sindicales para acordar las próximas Ofertas Públicas de Empleo en las que, por primera vez, se quieren materializar los procesos especiales de consolidación del empleo

El Consejo de Gobierno ha manifestado, hoy, su criterio desfavorable a la tramitación de la “Proposición de Ley para la Estabilidad del Empleo Público” registrada por el Grupo Parlamentario EH-BILDU. Entre otros motivos, el Gobierno Vasco recuerda que, en enero, ya aprobó y envió a la Cámara un [Proyecto de Ley de Empleo Público Vasco](#) que recoge las propuestas de estabilización de empleo que se proponen ahora mediante esta segunda iniciativa legislativa. Lo lógico es que el grupo proponente, en vez de presentar una iniciativa legislativa nueva, elabore enmiendas al [Proyecto de Ley](#) presentado hace meses por el Gobierno Vasco y que está en plena fase de tramitación. Además, estos procesos de estabilización de empleo públicos incluidos en las disposiciones de la [iniciativa legislativa del Gobierno Vasco](#) tienen sólidas garantías jurídicas al contar, ya, con el aval de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi (COJUA).

De la misma manera, EH-BILDU quiere que el Gobierno Vasco elabore un plan estratégico nuevo cuando ya hay en vigor dos planes que son la articulación metodológica más adecuada para el desarrollo de los procesos de consolidación de empleo público: el *Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública 2020* y el *Plan Estratégico de Empleo 2020*.

Por otra parte, el Gobierno Vasco cree que la iniciativa de EH-BILDU puede interferir gravemente en las negociaciones que se están llevando a cabo en las mesas de negociación colectiva en las que se están trabajando, con las centrales sindicales, las próximas ofertas públicas de empleo en las que se quieren materializar, por primera vez, estos procesos especiales de consolidación.

## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

### **VIKESA INICIA ESTE AÑO 484 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL EN LOS TRES TERRITORIOS, EL 72% PARA ALQUILER SOCIAL**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno al Contrato Programa 2019 suscrito entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y su sociedad pública VIKESA (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra/Vivienda y Suelo de Euskadi S.A.).

Este documento detalla la actividad de VIKESA y plasma la reorientación de su producción hacia la vivienda en alquiler, en la línea marcada por el Plan Director de Vivienda 2018-2020 y el Plan Estratégico de VIKESA del mismo periodo. Tal y como marca la Ley de Vivienda de 2015, la actividad de VIKESA se redirige hacia la vivienda en alquiler, de forma que, a partir del segundo trimestre del próximo año, VIKESA solo calificará vivienda bajo el régimen de arrendamiento.

El Contrato Programa recoge para este ejercicio de 2019 la promoción de un total de 484 viviendas. De ellas, un 72% (348) serán en régimen de alquiler y serán gestionadas por la Sociedad Pública Alokabide. El 28% restante (136 viviendas), que ya estaban programadas, se promueven en la modalidad de compra.

En lo que se refieren a las 348 viviendas en alquiler, 94 viviendas sociales serán promovidas en el municipio vizcaíno de Barakaldo y 254 en Gipuzkoa, en las localidades de Arrasate-Mondragón (70 VPO en alquiler), Hondarribia (34 viviendas sociales y 42 VPO en alquiler) y Zumarraga (72 VPOa y 36 VS). Por su parte, las viviendas en compra se ubican en Bilbao (58 VPO en Zorrotzaurre), Hondarribia (42 VPO) y Eibar-Egazelai (36 VPO).

## Educación

### **175.000 EUROS PARA AYUDAS A ESTANCIAS DEL PERSONAL INVESTIGADOR PREDOCTORAL**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para estancias en centros distintos al de aplicación del Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador.

Esta convocatoria, con un importe global de 175.000 euros, se dirige al personal investigador que sea beneficiario del Programa Predoctoral anteriormente citado. Estos investigadores e investigadoras mantienen una relación contractual con centros de investigación (universidades u organismos con capacidad y actividad demostrada en I+D+i), que son considerados centros de aplicación para el Programa Predoctoral. No obstante, en numerosas ocasiones, y en el desarrollo de su labor investigadora, los y las investigadores predoctorales han de realizar estancias temporales en otros centros distintos a su de aplicación.

El Departamento de Educación convoca, por tanto, estas ayudas económicas con el objeto de conceder complementos económicos a todos aquellos beneficiarios del Programa Predoctoral que deban realizar desplazamientos o cambios temporales de residencia. Estas estancias se podrán realizar en universidades, centros de investigación o de desarrollo tecnológico y en empresas con actividad de I+D+i, extranjeros o estatales, siempre que estén ubicados en una localidad distinta a la del centro de aplicación y suponga un cambio temporal de residencia que justifique la concesión de las ayudas económicas.

Durante el presente año 2019, un total de 58 investigadores e investigadoras predoctorales han recibido esta ayuda económica a través de la convocatoria del pasado año, para poder realizar sus estancias temporales en otros centros.

Estas estancias predoctorales, que se iniciarán durante el año 2020, tienen como finalidad la mejora de la formación en investigación científica y técnica de dicho personal mediante la realización de actividades de investigación, el aprendizaje de nuevas técnicas de aplicación al proyecto de investigación, y cualquier otra actividad de investigación que, en el contexto del proyecto de tesis en ejecución, redunde en beneficio de su formación científica y técnica e impulse el desarrollo de su tesis.

## Educación

### **SUBVENCIÓN DIRECTA A LA FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA EN MÁQUINA-HERRAMIENTA, PARA EL DESARROLLO DE ACTUACIONES EN FORMACIÓN DUAL**

El Consejo de Gobierno ha acordado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la concesión de una subvención directa a la Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta de Elgoibar, al objeto de financiar los proyectos que lleva a cabo su Escuela Universitaria de Ingeniería Dual, en el año 2019. Esta subvención tiene un importe de 27.150 euros.

La Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta de Elgoibar (IMH) es un Centro de Capacitación e Innovación Tecnológica que sirve a la industria y a la comunidad a través de actividades de capacitación, divulgación tecnológica y servicios técnicos. Las actividades formativas más importantes que se llevan a cabo en este centro se desarrollan en los ámbitos de la formación profesional, la formación universitaria y la educación continua.

La Escuela Universitaria de Ingeniería Dual del IMH, como centro adscrito a la UPV/EHU, cuenta entre su oferta formativa con un *Grado Dual en Ingeniería de Procesos e Innovación de Productos*, con cerca de 200 alumnos y alumnas en sus cuatro cursos. Además del citado, esta Escuela Universitaria también ha diseñado otros dos títulos de posgrado propios: *Proyectos de Analítica Predictiva de Datos para la Industria 4.0* y *Fabricación Aditiva*, ambos diseñados en colaboración con empresas líderes y agentes del sistema de innovación.

El programa anual de actividades para el año 2019 de la Escuela Universitaria de Ingeniería Dual de IMH, describe entre sus principales líneas de actuación y objetivos, el de desarrollar un proyecto de referencia en el campo de la formación dual y la colaboración con empresas a nivel estatal, objetivo al que se destina la subvención hoy aprobada.

El modelo de formación dual, gracias a la formación combinada entre universidad y empresa, reduce la distancia entre la enseñanza clásica y la realidad profesional. Este modelo innovador, que es impulsado por la *Estrategia Universidad+Empresa* del Gobierno Vasco, permite desarrollar en dos contextos diferentes las competencias adquiridas en tiempo real por el alumno, tanto el conocimiento universitario como el aprendizaje experimental de la empresa, garantizando de esta manera su acceso al mundo laboral.

## Trabajo y Justicia

### **EL GOBIERNO DESTINA 2,7 MILLONES DE EUROS A LA AMPLIACIÓN DEL EQUIPAMIENTO JUDICIAL EN BILBAO**

El Consejo de Gobierno ha acordado la adquisición de un total de diez locales en Bilbao, sitos todos ellos en el edificio nº3 de la calle Ibañez de Bilbao, conocido como Edificio Cristal, por importe de 2.765.000 euros.

La ubicación de los locales es especialmente idónea, no sólo por su inmediatez a los actuales edificios judiciales de Bilbao, sino porque la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi es propietaria de la planta baja de este mismo edificio, ocupada por el Servicio Vasco de Gestión de Penas, el Servicio de Atención a la Víctima y el Servicio de Justicia Restaurativa, todos ellos dependientes de la Dirección de Justicia.

La operación de adquisición permite ampliar en 1.175 metros cuadrados el equipamiento judicial de la capital vizcaína, constituir el edificio en sede de Servicios no Jurisdiccionales ligados al resto del equipamiento judicial de Bilbao y reubicar algunas dependencias de los Palacios de Justicia de Barroeta y Buenos Aires para acomodar los nuevos Órganos Judiciales ya aprobados (Juzgado de Primera Instancia nº 16) e implantar la futura Nueva Oficina Judicial.

En la actualidad el equipamiento judicial de Bilbao (61.812 metros cuadrados) se encuentra repartido en cuatro edificaciones:

- Palacio de Justicia de Buenos Aires, que cuenta 22.800 metros cuadrados y alberga los juzgados de la jurisdicción penal, el grueso de las dependencias de la Fiscalía Provincial y del Instituto Vasco de Medicina Legal ML, las oficinas de la EAT, etc...
- Palacio de Justicia de Albia, que dispone de 12.300 metros cuadrados y es sede del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, de la Fiscalía Superior y de la Audiencia Provincial.
- Palacio de Justicia de Barroeta, que comunicado con el anterior y cuenta con 26.200 metros cuadrados y alberga los juzgados de la jurisdicción civil, la Fiscalía de Menores, el Instituto Anatómico-Forense y los laboratorios del Instituto Vasco de Medicina Legal.
- Planta Baja del edificio de oficinas "Cristal" de Ibañez de Bilbao nº 3 que suma otros 465 m<sup>2</sup>, ocupados por el Servicio Vasco de Gestión de Penas, el Servicio de Asistencia a la Víctima, y el Servicio de Justicia Restaurativa de Euskadi, todos ellos dependientes de la Dirección de Justicia.

Por otra parte, recordar que en octubre de 2017 se dio inicio a las obras del edificio de la Fiscalía Provincial de Bizkaia, situado en la calle Henao nº 9 del ensanche bilbaíno, que tienen un presupuesto de 7,6 millones de euros y un

plazo de ejecución de 46 meses, estando prevista su finalización en octubre de 2021 y la puesta en servicio del edificio en el segundo semestre de 2022.